

Erronkari buruzko fitxa

HAZI

Nola **automatiza** genezake *elikaduraren eta zuraren balio-katearen* eremuko **antolatzaileen ekintza, ekitaldi, edota jardunaldietako informazioaren bilketa eta landa nahiz itsasertzeko ingurunearen dinamizazioa, eragile interesdunen artean hedatzeko?**

Azpi-erronkak:

- Nola sailka eta kategoriza genezake ekintza, ekitaldi, edota jardunaldiei buruz jasotako informazioa, ondoren ustiatu ahal izateko?
- Nola bistara genezake dagoen informazio guztia biltegi komun batean, agenda adimenduna sortzeko?
- Nola ustia genitzake bilaketen emaitzak, etorkizunean identifikatutako interesen araberako ekitaldien sorrera optimizatzekeo?

Testuingurua:

HAZI elikaduraren eta zuraren balio-kateko enpresen lehiakortasun eta jasangarritasunaren hobekuntza eta Euskadiko landa nahiz itsasertzeko ingurunearen dinamizazioa sustatzen duen enpresa publikoa da. HAZIk eskaintzen dituen zerbitzuen artean ONEKIN ataria (<https://www.onekin.eus>), sektorearentzako informazio eta zerbitzu orokorren kanala, azpimarratu nahi dugu. Gaur egun, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetzan mendeko ekosistemako eragile asko daude, kanal propioen bidez (webgunea, sare sozialak, buletinak...) hainbat ekitaldi eskaintzen dituztenak.

Informazioa sakabanatuta egoteagatik sektoreko enpresek eskuragarri dagoen eskaintza ezagutzeko arazoak izaten dituztenez, ikusi da espazio komun bat izan behar dugula sektoreko eragileek beren ekitaldiei buruzko informazioa argitara dezaten. Behar horretan aurrera egiteko asmoz, ekitaldi horiei buruzko informazioaren bilketa automatizatzea planteatzen da, ondoren sailkatu, kategorizatu, bistaratu eta ustiatzeko, eta, hala, ONEKINen **sektorearen Agenda Adimendunaren** zerbitzu berria sortzeko etorkizunean.

Helburuak:

Gutxienez helburu hauetakoren bat betetzen duten irtenbideak bilatzen ditugu:

- **HAZIk alde zuzenetik identifikatutako eragile antolatzaileen ekitaldiei buruz dagoen informazioa biltzea**, eta haien egungo kokapena (webgunea, sare sozialak edo buletinak) definitzea.
- Agente bakoitzak informazioa argitaratu ondoren, informazio horren bilketa erabat **automatizatzea**, arretarik jarri gabe. Automatizazio hori gutxienez egunero egin behar da.
- Bildutako informazioa **egituratzea** on-Premise biltegi komun egituratu batean.

Zeren bila gabiltza?

Honako alderdi hauek baloratuko dira:

- Hizkuntza anitzeko (gutxienez euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez) irtenbidea izatea.
- Biltegi kategorizatu eta sailkatua izatea.
- Dagoen informazioaren artean elkarreragiteko gaitasuna izatea.
- Esperientzia atsegina izatea eta ez sortzea hura gauzatzeko lan-karga handiagorik.
- Modu erraz eta dinamikoan eskala daitekeen irtenbidez izatea.

Prozesua eta data gakoak:

Erronkan parte hartzeko, eman izena esteka honetan. [oraindik jaso gabe].

- Honako hau da proposamenaren erantzuna jasotzeko azken eguna: 2024/05/02ko 23:59.
- Finalerdira iritsi diren startupen berri 2024/05/10ean emango da.
- Startup finalisten berri 2024/05/24an emango da.
- Startup irabazlearen berri 2024/06/13an emango da.

Hautaketa-prozesuak 3 fase ditu:

1. **1. fasea:** finalerdikora iritsi direnek aurkezpena egingo diote sozietateari. Hiru startup finalista hautatuko dira. 2024ko maiatzaren 16tik 24ra izango da.
2. **2. fasea:** sozietateak elkarrizketa-txanda egingo du finalistekin. 2024ko maiatzaren 27an izango da.
3. **3. fasea:** sozietateak azken bilera egingo du finalistekin piloturako startup irabazlea hautatzeko. 2024ko ekainaren 11n eta 12an izango da, azelerazio-programan zehar.

Zer eskuratzen duzu?

Startup finalistak (3)

- Bi eguneko govtech **azelerazio-programa**. 2024ko ekainaren 11n eta 12an izango da, Bilbon, aurrez aurre.

Startup irabazlea

- **Irtenbidearen aurkezpena Demo Day de BIND GovTech 2024an**, Bilbon, aurrez aurre.
- **Ordaindutako pilotua**, gehienez 15.000 euro. Irtenbide irabazlea ezartzeko pilotua 2024ko uztailean hasiko da eta 5 hilabeteko iraupena izango du.